

Eskoriatzako ERESERKIA

HITZAK: Jose Aranburuzabala (TRANKIL)

MUSIKA: Juan Carlos Irizar

URTEA: 1988

Leniztarrak gera gu
Eskoriatzakoak
Beti maite ditugu
herri eta basoak
Irriparrez alkartuz
kale ta auzoak
Bat eginik abestuz
amets herrikoak.

Gora, gora betiko
Gora bat batian, batian
Gurea dan herria
Atxorrotx azpian
Anaitasunaz zutik
bizitza guztian.

Aupa Eskoriatza, danok alkaturik
Aupa Eskoriatza goguan harturik
Aupa Eskoriatza bihotza pozturik
Aupa Eskoriatza beti abesturik

Zure semeak gera
Zuretzat gera gu
Aspalditik onera
Zurekin nahi dugu
Amets ugari batuz
Hementxe ditugu
Eskoriatza barruz
Betiko zaitugu.

Zuzentasunen hitzez
Gaitezen kantari
Maitasunaren bidez
Herritar danari
Bihotzaren agurrak
ESKORIATZARI.

Aupa Eskoriatza danok bat-batian
Aupa Eskoriatza abestu gaitian
Aupa Eskoriatza ahoa betian
Aupa Eskoriatza, Euskadi guztian.